**UDALEKO OSOKO BILKURAREN APARTEKO BILERA**

**2015eko martxoaren 31**

Lesakako Herriko Etxeko Bilera Aretoan, bi mila eta hamabortzgarren urteko martxoaren hogeita hamaikan, ortziralea, ilunabarreko zortzietan, udaleko Osoko Bilkura bildu da, aparteko bileran eta lehenengo deialdian, Peio Etxabide Gartzia alkate jaunaren lehendakaritzapean eta ondoko zinegotzi hauek etorri direla: Koldo Aingeru Erquicia Ochoteco, Severiano Txoperena Matxikote, Jose E. del Rio Echeverria, Maider Arrieta Tapia, Jose Luis Echegaray Andueza, Jose Esteban Echeveste Apezteguia, Pedro Apezteguía Alzugaray, Victoriano Ruiz Alvarez eta María Victoria Gortari Aldave jaun-andreak.

Ez da agertu Ainara Flores Compains zinegotzi andrea, eta ez etorri izana justifikatu du.

Idazkari lanetan, Andoni Esparza Leibar jauna ari da, udaleko idazkaria.

Alkate jaunaren aginduz, bilkura hasi da, eta, deialdiari jarraituz, ondoko gai hauei buruz aritu dira:

**1 – BIDASOAKO BIDE BERDEAREN KUDEAKETARI BURUZKO ERABAKIA.**

Espedientean ageri da Cederna-Garalur Elkarteak bidali duen dokumentazioa (830. sarrera, 2015/03/23koa).

**SESIÓN EXTRAORDINARIA DEL PLENO DEL AYUNTAMIENTO**

**31 de marzo de 2015**

En el Salón de Sesiones del Ayuntamiento de la Villa de Lesaka, siendo las veinte horas y treinta minutos del martes 31 de marzo del año dos mil quince, se reúne, en sesión extraordinaria y a primera convocatoria, el Pleno municipal, presidido por el señor alcalde don Peio Etxabide Gartzia y con la asistencia de los siguientes concejales: don Koldo Aingeru Erquicia Ochoteco, don Severiano Txoperena Matxikote, don José E. del Río Echeverria, doña Maider Arrieta Tapia, don José Luis Echegaray Andueza, don José Esteban Echeveste Apezteguía, don Pedro Apezteguía Alzugaray, don Victoriano Ruiz Álvarez y doña María Victoria Gortari Aldave.

No acude, habiendo excusado su inasistencia, la concejal doña Ainara Flores Compains.

Actúa como secretario, el de la Corporación, don Andoni Esparza Leibar.

Por disposición del señor alcalde se da comienzo a la sesión en la que, conforme a la convocatoria, son tratados los siguientes asuntos:

**1 – ACUERDO SOBRE LA GESTIÓN DE LA VÍA VERDE DEL BIDASOA**

Obra en el expediente la documentación enviada por la Asociación Cederna-Garalur (entrada nº 830, de 23/03/2015).

Han adierazten denaren arabera, Bertizko Turismo Partzuergoak, bere Batzorde likidatzailearen bitartez, eta Cederna-Garalur Elkarteak aurreikusi dute Bidasoako Bide Berdearen, Endarlatsa-Doneztebe tartean, titularitatearen eta kudeaketaren lagapena sinatzea, administrazio espedientean ageri diren estipulazio eta edukiarekin.

Según se indica, el Consorcio Turístico de Bertiz, a través de su Comisión liquidadora, y la Asociación Cederna-Garalur tienen previsto firmar una cesión de titularidad y gestión de la Vía Verde del Bidasoa en el tramo Endarlatsa-Doneztebe/Santesteban, con el contenido y estipulaciones que obran en el expediente administrativo.

Udal hau kitaturiko Bertizko Turismo Partzuergoko kide den heinean, eta azalpenezko aurrekarian aipatu den lagapenean ageri den moduan, planteatzen da behar dadila aipatu bidearen mantentze-kostuari eta kudeaketari aurre egitera, eta baita erran den bidetik lagapena egin baino lehenagoko operaziotik erator daitezkeen gastuez edo kostuez arduratzera (desjabetzeak, eta abar), horrela kudeaketa eta subrogazio horrek ez diezaiola inolako kosturik eragin Cederna-Garalur Elkarteari.

Por la condición de este Ayuntamiento de miembro del liquidado Consorcio Turístico de Bertiz, y tal y como se contempla en la cesión mencionada en el expositivo precedente, se plantea que se obligue a hacer frente al coste de mantenimiento y gestión de la citada vía, así como de los gastos o costes que puedan derivarse de dicha vía por operaciones anteriores a la cesión (expropiaciones etc.), de forma que dicha gestión y subrogación no suponga coste alguno a la Asociación Cederna-Garalur.

Eztabaida Jose Luis **Echegaray** zinegotzi jaunak hasi du: "Guk, 2014ko abenduaren 26an eginiko osoko bilkuran, erran genuen ustekabean harrapatu gintuela eta uste genuela Bilduk erabaki zuen Bertizko Turismo Partzuergoaren berehalako desegitea, 22 urte funtzionatzen ari ondotik, ez zela behar bezain bertze hausnartua izan hura osatzen zuten gizarte-eragileen aldetik, bertzela hobekio aztertuko zirelako presa horiek partzuergokideentzat ekar zitezkeen ondorio ekonomiko eta juridikoak.

Inicia el debate el concejal don José Luis **Echegaray**: "Nosotros en el pleno celebrado el 26 de diciembre de 2.014, dijimos que nos había pillado de sorpresa y que creíamos que la precipitada disolución del Consorcio Turístico de Bértiz decidida por Bildu después de 22 años de funcionamiento, no había sido suficientemente meditada por los agentes sociales que lo componían, ya que de lo contrario se habrían analizado mejor las consecuencias económicas y jurídicas que estas prisas pudiesen suponer para los socios del mismo.

Erran genuen ez genekiela zein egoeratan gelditzen ziren Partzuergoko langileak.

Dijimos que no conocíamos, en qué situación se quedaban los trabajadores del

Oroitarazi genuen ez genekiela zein egoeratan gelditukoa zen Europako Komunitate Ekonomikoak emaniko diru-laguntza garrantzitsu bat, ordurako gastatua bide berdean eta kitatu gabe zegoena.

Erran genuen ere gustatuko litzaigukeela lehenik ezagutzea zertan oinarritzen zen Bilduren plan alternatiboa.

Galdetu genuen: Nor arduratuko da Partzuergoa kitateaz?

Eta azkenik, ohartarazi genuen zalantza horiek erantzunik ez izan arte, gure taldeak kontra emanen zuela botoa gai honen inguruan aurkeztu diren proposamen guzietan.

Bada, gaur, hiru hilabete beranduago eta horri buruz deus aipatu gabe, aurkitzen gara batzorde likidatzailea dagoeneko osatu dela eta horrek bide berdea eta bere ondasun eta lur-eremu guziak bertze entitate bati oparitu nahi dizkiela, ezta inolako kontraturik ere egin gabe bertze elkarte horri behartzeko aipatu bide hori erabiltzeko baldintza ezin hobeetan mantentzera.

Atentzioa ematen digu, eta gure ordezkarien utzikeriatzat jotzen dugu, batzorde likidatzailean eta gehien bat bide berde famatu horren gaiaren negoziazioan ez egotea Lesakako Udaleko ordezkari bakar bat ere, gainera Partzuergoko Udalarik handiena izanik Baztangoaren ondotik, diru gehien ematen duena eta bidearen kilometro gehien eta metro koadro lur gehien lagatzen duena, horrela utziz Lesakakoak ez

Consorcio.

Recordamos que no conocíamos la situación en la que quedaría una importante subvención concedida por la Comunidad Económica Europea, ya gastada en la vía verde y sin liquidar.

También dijimos que nos hubiera gustado, haber conocido primero en que se basaba el plan alternativo de Bildu.

Preguntamos: ¿Quién se encargaría de liquidar el Consorcio?

Y finalmente, advertimos que mientras todas estas dudas no obtuvieran respuesta, nuestro grupo votaría en contra de todas las propuestas presentadas sobre esta cuestión.

Pues bien, hoy tres meses después y sin que nada se haya comentado al respecto nos encontramos con que ya se ha formado la comisión liquidadora y que por parte de la misma se pretende regalar la vía verde y todos sus terrenos y bienes a otra entidad sin que ni siquiera medie ningún contrato que obligue a esta nueva sociedad al mantenimiento de dicha vía en condiciones óptimas de utilización.

Nos llama mucho la atención y consideramos una dejación por parte de nuestros representantes, que en la comisión liquidadora y sobre todo en la negociación del tema de la famosa vía verde, no haya ningún representante del Ayuntamiento de Lesaka, por cierto el mayor Ayuntamiento del Consorcio después de Baztán, el que más dinero aporta y el que más kilómetros de vía y más metros cuadrados de terreno cede a la

diren pertsonaren eskutan gure udalerriaren eskubide eta jabetzak. Beraz, segitzen dugu botoa kontra emateko ideiarekin, gure herriaren eskubideak edozein erakundetan gogo gehiagorekin defendatzen ez diren artean, agintzen duenak agintzen duela.".

Erantzun du Severiano **Txoperena** jaunak: "Bertizko Partzuergoaren estatutuetan argi gelditzen da nola izango den prozesua likidatzeko eta momentu horretan (2014ko abenduaren 29an) erabaki zen disolbitzea eta horretan Batzordea ea eratua gelditu zen, estatutuetan agertzen den bezala. Bide berdea ez zaio oparitzen Cedernari. Egiten da zesio bat mantenimendua ziurtatzeko bost urtez, Europako diru-laguntzak eskatzen diren bezala. Orduan Udal honek Batzorde horretan ez egotearen arrazoia da 2011n Batzordeko kide horiek orduan aukeratu zirelako eta guk, Udal bezala, ez geunden hor".

Behin eztabaida amaituta, bozketa egin da. Bilduko bortz zinegotziek proposamenaren alde bozkatu dute, eta EAJ/PNVko bortz zinegotziek kontra.

Gertatu den berdinketaren aitzinean, bertze bozketa egin da, emaitza berdinarekin. Beraz, eta udalburuaren kalitatezko botoarekin (Toki Entitateen Antolamenduari, Funtzionamenduari eta Araubide Juridikoari buruzko 100.2 artikuluak xedatzen duen bezala), osoko bilkurak honako hau erabaki du:

1 – Aitortzea Udal honek duen obligazioa aipaturiko Bidasoako bide berdearen mantentze- eta

misma, dejando de esta forma en manos de personas ajenas a Lesaka, propiedades y derechos de nuestro municipio, por lo que seguimos con la idea de votar en contra mientras no se defiendan los derechos de nuestro pueblo con más ahínco en cualquier organización, lidere quien lo lidere".

Responde don Severiano **Txoperena**: "En los estatutos del Consorcio de Bértiz queda claro cómo será el proceso para liquidar y en ese momento (29 de diciembre de 2014) se decidió disolverse y entonces la Comisión quedó casi formada, tal y como aparece en los estatutos. No se regala la vía verde a Cederna. Se hace una cesión para asegurar el mantenimiento durante cinco años, de la misma forma que se piden las subvenciones de Europa. Entonces la razón de que este Ayuntamiento entonces no estuviera en esa Comisión es que en 2011 se eligieron esos miembros de la Comisión y entonces nosotros, como Ayuntamiento, no estábamos ahí".

Una vez finalizado el debate se procede a la votación. Los cinco concejales de Bildu votan a favor de la propuesta, haciéndolo en contra los cinco concejales de EAJ/PNV.

Ante el empate producido se realiza una nueva votación que arroja el mismo resultado. Por lo tanto y con el voto de calidad del presidente (tal y como establece el artículo 100.2 del Reglamento de Organización, Funcionamiento y Régimen Jurídico de las Entidades Locales), el Pleno acuerda:

1º) Declarar la obligación, por este Ayuntamiento, de hacer frente al coste de

kudeaketa-kostuari aurre egiteko, eta baita erran den bidetik, lagapena egin baino lehenagoko operaziotik, erator daitezkeen gastuez edo kostuez arduratzera ere (desjabetzeak eta abar), modu horretan kudeaketa eta subrogazio horrek ez diezaiola inolako kosturik eragin Cederna-Garalur Elkarteari, horrela begiesten baita administrazio espedientean ageri den lagapenean.

2 – Obligazio horren araubide juridikoa honako hau izanen da:

- Zuzenean ordaintzeko obligazioa, Cederna-Garalurrek aldez aurretiko inolako ordainketarik egin gabe.

- Erabaki hau formalizatuko duen dokumentua, behar bada publikoa, sinatzea, eta Udaleko udalburuari baimena ematea horretarako.

- Aitorpena, hitzarmen honen izaera administratiboarena. Ondorioz, bere kasuan, Elkarte horrek edo bere kideek edozein zor erreklamatu ahal izanen dute administrazio bidea erabiliz.

**2 – MUSIKA ESKOLAREN KUDEAKETA ADJUDIKATZEKO BALDINTZA PLEGUAREN ONESPENA.**

Espedientean ageri da honako izenburua duen agiria: *Baldintza Administratiboen plegua, Musika Eskolako klaseak emateko kontratua adjudikatzeko, prozedura irekiaren bitartez (2015-2016 ikasturtea).* Lizitazio prezioa 120.000 €-koa da, urte baterako. 2015eko martxoaren 24ko data duen zirriborro bat da. Udaleko idazkariak martxoaren 25ean emaniko txosten bat ere ageri da.

mantenimiento y gestión de la citada vía verde del Bidasoa, así como de los gastos o costes que puedan derivarse de dicha vía por operaciones anteriores a la cesión (expropiaciones etc.), de forma que dicha gestión y subrogación no suponga coste alguno a la Asociación Cederna-Garalur, tal y como se contempla en la cesión que obra en el expediente administrativo.

2º) El régimen jurídico de dicha obligación será el siguiente:

- Obligación de pago directo sin que por Cederna-Garalur deba efectuarse pago previo alguno.

- Firma, autorizando al presidente del Ayuntamiento para ello, de documento, público en su caso, por el que se formalice el presente acuerdo;

- Reconocimiento del carácter administrativo del presente pacto a efectos de que, en su caso, por dicha Asociación o miembros pueda reclamarse cualquier deuda por vía administrativa.

**2 – APROBACIÓN DEL PLIEGO DE CONDICIONES PARA ADJUDICAR LA GESTIÓN DE LA ESCUELA DE MÚSICA.**

Consta en el expediente el documento titulado *Pliego de condiciones administrativas para la adjudicación, mediante procedimiento abierto, del contrato para impartir las clases de la Escuela de Música (curso 2015-2016).* El precio de licitación es de 120.000 € para el periodo de un año. Se trata de un borrador fechado el 24 de marzo de 2015. Figura igualmente un informe emitido por el secretario del Ayuntamiento el día 25 de marzo.

Jose Luis **Echegaray** jaunak hasi du eztabaida: "Uste dugu Udal batean erabaki garrantzitsuak hartu behar direnean, nola den baldintza-plegu baten aldaketa, musika eskolarekiko kontratu-harremanak funtsean baldintzatzen dituena, aipatu eskola horren biziraupena ere arriskuan jarri ahalko lukeena, guttienez aldaketa horien berri eman beharko litzaiekeela oposizioko zinegotziei.

Comienza el debate don José Luis **Echegaray**: "Creemos que cuando en un Ayuntamiento hay que tomar decisiones importantes como el cambio de un pliego de condiciones que condiciona sustancialmente las relaciones contractuales de la escuela de música con el mismo de tal forma, que podría incluso poner en riesgo la continuidad de dicha escuela, como mínimo se debería de poner en conocimiento de los concejales de la oposición dichos cambios.

Zoritxarrez, ez da Bilduren ohitura EAJ/PNVko zinegotziei deusen berri ematea, nola Udal honetan gehiengo absolutua dutenez, ez dute horren beharrik. Beraz, hagitz ongi dela adierazi baino ez zaigu gelditzen, ez dugula orain hasi behar gure eskubide edo betebeharrei buruz eztabaidatzen. Bertzerik gabe, ebazpen proposamen honen kontra bozkatu behar dugu, ezin baitugu ezagutzen ez dugun deusen alde egin eta ez dugulako inolako aukerarik izan parte hartzeko gaur pleno honetan onartzeko aurkeztu den dokumentu horren idazkeran".

Desgraciadamente, no es costumbre de Bildu informar de nada a los concejales de EAJ/PNV ya que al disponer de mayoría absoluta en este Ayuntamiento no le hace falta, por lo tanto solo nos queda advertirles que muy bien, que no vamos a entrar a discutir nuestros derechos u obligaciones ahora. Sencillamente vamos a votar en contra de esta propuesta de resolución porque no podemos apoyar nada que no conocemos y no hemos tenido ninguna oportunidad de participar en la redacción de este documento que hoy se nos presenta para su aprobación en este pleno".

Severiano **Txoperena** jaunak erantzun du: "Justu-justun bi aldaketa bakarrik dira, orain direla lau urte onartutakoarekin alderatuta: kontratuaren prezioa eta euskararen erabileraren normalizazioa. Plana txertatzea baldintza plegu honetan eta hau azkeneko Kultur Batzordean pasatu zen".

Responde don Severiano **Txoperena**: "Justamente son tan solo dos modificaciones: el precio del contrato y la normalización del uso del euskera. El aplicar el Plan en este pliego de condiciones y esto se pasó en la última Comisión de Cultura".

**Echegaray:** "Ongi, egia da aldaketak izan bi direla, baina bi kontratu guzia baldintzatzen dutenak, kontuan hartuta duten garrantzia. Izan ere horietako lehenbizikoak irakasle guziak hizkuntza zehatz batean titulatuak egotera baldintzatzen ditu,

**Echegaray**: "Bien, efectivamente los cambios son dos, pero dos que condicionan todo el contrato, dada su importancia. Porque el primero de ellos condiciona a todos los profesores a estar titulados en una determinada lengua y la segunda es

eta bigarrena da garrantzitsuena, kontratuaren baldintza ekonomikoa baita. Iruditzen zaigu, bi gai hauek duten garrantzia ikusita, beharrezkoa izanen zela Udalean akordio batera ailegatzea osoko bilkurara aurkeztu baino lehen, eta kategorikoki erran behar dut, espresuki aktan agertzeko, Txoperena jaunak gezurra erraten duela ziurtatu duenean gai hau azken kultura batzordean tratatu zela. Gainera, kultura batzorde horretara, erran genezakeen *kultura departamendu* horretako titularra ez zen agertu, baina bai bertze pertsona bat eta honek ziurtatzen dit nik aipatzen dudanean ez zela gaia tratatu, ez nagoela oker. Beraz, ia kokoteraino nago Udal honetako batzorde ezberdinetan solastu edo solastu gabeko gai horien inguruan; izan ere Udal honetako batzorde informatiboei edukia kendu zitzaien Bilduk bere gain hartu zuenean haien ardura eta nola hainbertze ari diren eztabaidatzen alderdikideen artean zein izan behar diren Udal honetako funtzionatzeko baldintza ezberdinak, iruditzen zaigu benetan uste dutela gainerakoei informatu dietela, haiek izanik Udal honetako gai guziak gisatu, prestatu eta jaten dituztenak. Eta gainerakook, egunera egon nahi baldin badugu, edo Sarrera-Erregistrotik lortu behar dugu informazioa edo ezusteak aurkitzen ditugu plenoetara ailegatzen garenean, eta are larriagoa dena, azken aldian, edozein arrazoi dela, bakarrik Bilduko zinegotzi bat joaten dela batzorde bakoitzera, eta EAJ/PNVko bi. Gainera ez du zertaz bere kideen aitzinean ere justifikatu behar gainerakoak ados ez gaudenean. Ez dute ezta fintasunik ere pentsatzeko ados ez gaudenok

la más importante, que es la condición económica del contrato. Creemos que, dada la importancia de estos dos temas, hubiera sido necesario haber llegado a un convenio en el Ayuntamiento antes de presentarlo a Pleno y categóricamente voy a decir, expresamente para que conste en acta, que el señor Txoperena miente cuando asegura que este tema se trató en la última Comisión de Cultura. Por cierto, Comisión de Cultura a la que no asistió la titular del, podríamos decir *departamento de cultura*, pero sí otra persona que me asegura que cuando yo comento que no se trató, estoy en lo cierto. Por lo tanto mi hartazgo en estos temas hablados o no hablados en distintas comisiones de este Ayuntamiento llega al límite, puesto que las comisiones informativas de este Ayuntamiento ya fueron vaciadas de contenido cuando Bildu asumió el poder de las mismas y de tanto discutir dentro de sus filas de cuales van a ser las distintas condiciones de funcionamiento de este Ayuntamiento, creemos que ya verdaderamente piensan que han informado al resto, cuando ellos son los que guisan, cocinan y se comen todos los temas de esta Corporación y el resto, si queremos estar al día, o nos tenemos que informar por el Registro de Entrada o nos encontramos con las sorpresas al llegar a los plenos, con la agravante de que últimamente, por el motivo que sea, solo acude un concejal de Bildu a cada comisión, por dos de EAJ/PNV. Además no tiene ni que justificarse ante sus propios compañeros, cuando el resto discrepamos. Ni siquiera tienen la delicadeza de pensar que los que discrepamos, a veces podemos

batzuetan arrazoia ere izaten ahal dugula. Plenora ailegatzerakoan eta kideen aitzinean edozein astakeria erratearekin nahikoa dute eta hori politikoki ez da etikoa eta hagitzez guttiago demokratikoa. Gai bat batzorde batean edo bertze edozein bileratan tratatzen denean gu gara lehenak onartzen hori hala izan dela. Baina pertsona gisa ere min handia ematen digu modu horretan tratatzeak, batzordeetan ezkutatzea edo behar bezala ez informatzea, edozein arrazoi dela medio, eta gero plenoetan lortu nahi dute korporazio kideei eta bertaratu den publikoari sinestaraztea jokoz kanpo dagoena bertzea dela".

**Txoperena**: "Dirudienez, memoria arazo larriak ditut azken honetan. Horretaz ez naiz gehiago hor sartuko. Bi aldaketa hauek aipatzen direnak. Euskararena lehengo baldintza pleguan zehaztu gabe zegoen, baina euskara eskatzen zen. Momentu honetan zehaztua dago zer maila behar den. Eta informazio eza aipatzen denean, jakin azkeneko urteetan adostutako diru kopurua ordaintzen dena, dela orain bezalakoa eta Aurrekontuan dago. Hori ere informazioa ezkutatzea izango da. Eta ikusi beharko dena da, hemendik aintzinera, batzordeetan ere aktak hartzen hasi beharko dugula, nire memoria arazoak konpontzeko".

**Echegaray:** "Bai, egiatan, Txoperena jaunak errepaso ttiki bat behar du bere memoria arazoetan. Izan ere, oraintxe erran du aitzineko lizitazioa eta momentu honetan eztabaidatzen ari garen hau berdinak direla, eta horrela izanen balitz, nik ez nuen aipatu izanen. Nire oharrek erraten

también tener razón. Con soltar cualquier "burrada" al llegar al Pleno y delante de los compañeros les vale y eso políticamente no es ético y mucho menos democrático. Cuando un tema se trata en una comisión o en cualquier otra reunión, somos los primeros en reconocer que es así. Pero también como personas nos duele profundamente que se nos trate de esa forma, se esconda o no se informe adecuadamente, por el motivo que sea en las comisiones y luego en los plenos se quiera hacer creer a los compañeros de corporación y al público asistente que el que está fuera de juego es el otro".

**Txoperena**: "Parece que últimamente tengo graves problemas de memoria. Por ello no me meteré más ahí. Estas dos modificaciones que se mencionan. La del euskera estaba sin definir en el anterior pliego de condiciones, pero se pedía el euskera. En este momento está definido qué nivel se pide. Y cuando se menciona la falta de información, sabed que el importe de dinero acordado que se abona los últimos años, es como el de ahora y está en el Presupuesto. Eso será también ocultar la información. Y lo que se tendrá que ver es, de aquí en adelante, si tendremos que comenzar a levantar actas también en las comisiones, a fin de arreglar mis problemas de memoria".

**Echegaray**: "Sí, verdaderamente necesita un pequeño repaso en sus problemas de memoria el señor Txoperena, porque acaba de asegurar que la licitación anterior y la que estamos discutiendo en este momento son iguales y si hubiera sido así, yo no lo hubiera mencionado. Mis apuntes me dicen

didate aitzineko lizitazioa 152.000 € ingurukoa zela eta oraingo lizitazioa 120.000 €-an dago. Beraz, hori da arrazoia zergatik erraten nuen nik Musika Eskola arriskuan egoten ahal zela. Bertze gauza da enpresek proposamenetan aurkezten ahal duten baja, baina hori ez da gure eskuetan. Nik nire parte-hartzean lizitazioei buruz ari nintzen eta ez enpresak edo enpresa ezberdinek egin ditzaketen proposamenei buruz. Korporazio honek ezin baitu jakin eta ez du jakin behar, hagitz larria litzatekeelako norbaitek aldez aurretik dagokion lanaren lizitazio-prezioa negoziatzea".

que la licitación anterior estaba alrededor de 152.000 € y la licitación actual está en 120.000 €, por lo cual ese es el motivo por el que decía yo que se podía encontrar la Escuela de Música en peligro. Otra cosa es la baja que las empresas puedan presentar en su propuesta, pero eso ya no depende de nosotros. En mi intervención hablaba de licitaciones y no de las propuestas que vayan a hacer la empresa o las distintas empresas, puesto que esta Corporación no puede ni debe de saber, porque sería muy grave que alguien hubiera negociado de antemano el precio de licitación del trabajo correspondiente".

**Txoperena:** "Oraintxe ohartzen naiz non dagoen arazoa. Ez naiz sobera ongi esplikatu izanen. Lehenago aipatu dut azken urteetako aurrekontua (eta ez lizitazioa). Hau lau urtekoa da, baina nolabait urtero negoziatzen ahal da, aldeak ados egonez gero eta lehen erran bezala (ez nago ziur ea diren bi urte edo azken urtean gutxienez) orain esleitzen den dirua negoziatu zen, kopuru horretan emango zela zerbitzu hori eta horregatikan izan da horrela jartzea, ez gure asmakizun bat izan delako. Espero dut zehaztapen honekin oraingoan bai ongi gelditzea".

**Txoperena:** "Ahora me doy cuenta de donde está el problema. No me he explicado demasiado bien. Antes he mencionado el presupuesto de los últimos años (y no la licitación). Esta es de cuatro años, pero de alguna forma puede negociarse anualmente, si las partes están de acuerdo y conforme a lo dicho antes (no se seguro si son dos años o, al menos, el último año) se negoció el dinero por el que ahora se adjudica, que por esa cantidad se daría ese servicio y por eso ha sido el ponerlo así, no porque haya sido un invento nuestro. Espero que con esta precisión, ahora sí que quede bien".

**Echegaray:** "Bai, jauna. Aski garbi gelditu du Txoperena jaunaren parte-hartzearekin, gobernu honek bere gaiak lehiaketara ateri beharrean enpresekin negoziatzen dituela. Ez naiz izan ni hori erran duena, berak erran du. Beraz, ikusten dugu gobernu honen funtzionamendua urrun dagoela Udalera aurkeztu zirenean eskaintzen zuten

**Echegaray:** "Si señor, muy claro ha quedado con la intervención del señor Txoperena, que este gobierno en lugar de sacar a concurso sus temas, los negocia con las empresas. No he sido yo el que lo ha afirmado, ha sido él, con lo cual vemos que el funcionamiento de este gobierno dista mucho de la transparencia que ofertaba en su presentación

gardentasunetik. Aurresuposatu genezakeen bertze ezuste batzuetara pasatu gabe".

Une honetan **alkate** jaunak solas egin du: "Argi dago gai honekin ere nahasmena sortu nahi duela EAJko bozeramaileak, baina saiatuko naiz ahalik eta ongien azaltzen zergatik eman den lizitazio prezioaren jetsiera hau . Gaur egun Musika Eskolak gestionatzen duen enpresarekin, duela bi urte inguru negoziazio bat eman zen, kostua gehiegizkoa zela iritzita. Negoziazio horren ondorioz, zerbitzu horren kostua murriztea lortu zen eta prezio honetan lan egin du enpresa honek momentu arte. Hau izaki, gaur egun zerbitzu honek suposatzen duen kostua, prezio hori lizitazioaren hasierako prezioa izatea logikazko kontua iruditzen zaigu. Gero ikusiko da aurkezten diren enpresek egiten dituzten eskaintzak".

**Echegaray:** "Ez da EAJ/PNVko bozeramailea egoera honetan nahasmena sortu nahi duena, Bilduko bi bozeramaileak baitira beren bi parte-hartzeetan ziurtatu dutenak enpresa pribatuarekin negoziatzen dutela eta hori da ez zaiguna etikoa iruditzen administrazio publikoan. Ez dugu deus gehiago eztabaidan jartzen, bakarrik erantzuten diegu haiek egiten dutela ziurtatzen dutenari eta bakarrik erraten dugu administrazio publikoaren eta enpresa pribatuaren arteko negoziazioak ez direla etikoak eta hortxen gelditzen gara".

**Alkatea**: "Lehen aipatu bezala, esleipen honek lau urteko iraupena izan dezake, bi aldeetako adostasuna baldin bada. Duela bi urte Udalaren

a este Ayuntamiento. Sin pasar a otras sorpresas que podríamos presuponer".

Interviene en este momento el señor **alcalde**: "Está claro que el portavoz del PNV quiere suscitar confusión también con este tema, pero me esforzaré en explicar de la mejor forma posible porqué se ha dado esta baja en el precio de licitación. Con la empresa que gestiona la Escuela de Música hoy en día, se produjo una negociación hace unos dos años, por considerar que el coste era excesivo. A consecuencia de esa negociación, se logró reducir el coste de ese servicio y esta empresa ha trabajado hasta el momento con este precio. Siendo así el coste que hoy en día supone este servicio, nos ha parecido que es una cuestión de lógica el que ese precio sea el precio inicial de la licitación. Después se verá las ofertas que realizan las empresas que se presentan".

**Echegaray**: "No es el portavoz de EAJ/PNV el que pretende crear confusión en esta situación, sino que son los portavoces de Bildu en sus dos intervenciones los que aseguran que negocian con la empresa privada y eso es lo que no nos parece ético en la administración pública. No discutimos nada más, solo respondemos a lo que ellos aseguran que hacen y solo decimos que las negociaciones entre administración pública y empresa privada no son éticas y no pasamos de ahí".

**Alcalde**: "Como se ha indicado antes, esta adjudicación puede tener una duración de cuatro años, si hay un acuerdo de ambas partes. Hace dos

aldetik ezadostasuna agertu zen, zerbitzuaren kostuaren inguruan eta, horren ondorioz, ordutik Udalak egindako eskaintza ekonomikoa zerbitzua eskaintzen zuen enpresak onartu zuen eta horrela bete dira esleipen honen lau urteak.

Hemendik antzinera ikusiko da zer gertatzen den esleipen berriarekin".

Behin eztabaida amaituta, bozketa egin da. Bilduko bortz zinegotziek proposamenaren alde eman dute botoa eta EAJ/PNVko bortz zinegotziek kontra.

Gertatu den berdinketaren aitzinean, bertze bozketa egin da, emaitza berdinarekin. Beraz, eta udalburuaren kalitatezko botoarekin (Toki Entitateen Antolamenduari, Funtzionamenduari eta Araubide Juridikoari buruzko 100.2 puntuak xedatzen duen bezala), osoko bilkurak honako hau erabaki du:

1 – Onestea *Baldintza Administratiboen Plegua, Musika Eskolako klaseak emateko kontratua adjudikatzeko, prozedura irekiaren bitartez (2015-2016 ikasturtea).*

2 – Lizitazioari ekitea, Nafarroako Kontratazio Atarian argitaratuta.

3 – Erabaki honen berri ematea Tobera Musika Iharduerak S.L.L.-ri, enpresa hori baita gaur egun aipatu laguntza-kontratuaren adjudikazioduna.

Aipaturiko eguneko ilunabarreko bederatziak eta hamaihiru minutu direla, eta,

años se manifestó un desacuerdo por parte del Ayuntamiento, en relación al coste del servicio y a consecuencia de eso, desde entonces la empresa que presta el servicio aceptó la oferta económica realizada entonces por el Ayuntamiento y así se han completado los cuatro años de esta adjudicación.

De aquí en adelante se verá que sucede con la nueva adjudicación".

Una vez finalizado el debate se procede a la votación. Los cinco concejales de Bildu votan a favor de la propuesta, haciéndolo en contra los cinco concejales de EAJ/PNV.

Ante el empate producido se realiza una nueva votación que arroja el mismo resultado. Por lo tanto y con el voto de calidad del presidente (tal y como establece el artículo 100.2 del Reglamento de Organización, Funcionamiento y Régimen Jurídico de las Entidades Locales), el Pleno acuerda:

1º) Aprobar el *Pliego de condiciones administrativas para la adjudicación, mediante procedimiento abierto, del contrato para impartir las clases de la Escuela de Música (curso 2015-2016).*

2º) Proceder a la licitación, anunciándola en la Portal de Contratación de Navarra.

3º) Notificar el presente acuerdo a Tobera Musika Iharduerak S.L.L., empresa que tiene adjudicado en la actualidad dicho contrato de asistencia.

Siendo las veintiuna horas y trece minutos del día de la fecha y no habiendo más asuntos que

eztabaidatzeko gai gehiago ez dagoenez, alkate jaunak akabatutzat eman du bilera. Nik, idazkariak, egiaztatu egiten dut.

tratar, el señor alcalde da por finalizada la sesión. De todo ello yo, como secretario, certifico.